



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

2022KO URRIAREN 13AN EGINDAKO EZOHICO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Ainhoa Arrozpide Landa
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Andoni Atxega San Sebastian.
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Ez da bertaratu: Luken Arkarazo Silva.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2022ko urriaren 13an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- USURBILGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA HASIERAZ ONARTZEA.

Alkateak Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren hasiera onespenerari buruzko azalpenak eman ditu diapositibekin lagunduta, honela dio:

“Dakizueenez, gaur ez-ohiko plenoan gaude, ez-ohikoa edo udal honetan azken urteotan hartu den erabaki garrantzitsuenetako bat hartzera goazelako: Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onarpena ematera goaz.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Mugarri bat legealdi honetan, eta, beraz, mugarri bat Usurbilgo herriarentzat, izan ere, HAPOak finkatzen du Usurbilek hurrengo 15 urteotan izango duen garapena.

Gaur egun indarrean dauden Arau Subsidiarioak ordezkatzeko dituen hirigintza-plan bat da Usurbilgo Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) eta etorkizuneko Usurbil marrazten du. Udalerriak etorkizunean izango duen antolamendua zehazteko oinarrizko tresna da, izan ere, udalerriko lurzoruen erabilerak arautzen ditu, eta, besteak beste, ingurune naturala, mugikortasuna, espazio publikoa, etxebizitza, jarduera ekonomikoa edota ekipamenduen gaitetan eragin zuzena du. Herri-proiektu bat definitzen du, azken batean.

Ze herri eredu/proiektu sustatzen du HAPO honek?

Ezinbestekoa da ezer baino lehen testuinguruari erreparatzea.

Askotan esan izan dut XXI. mendeak erronka berriak ekarri dituela berarekin, eta zantzu gero eta argiagoak daude aro berri baten atarian egon gaitezkeela adierazten dutenak. Zibilizazio krisiaz mintzo dira asko eta asko, krisi guztiez hitz egiteko (krisi ekonomikoa, ekologikoa, zaintza, migrazioa...): Covidak eragin duen mundu mailako osasun krisiak eta gerra hotsek are gehiago azalerratu eta azkartu duena, hain justu.

Gaur egun ditugun erronkak globalak badira ere, tokian toki aurkitu behar zaie soluzioa, tokian tokiko errealitate ekonomiko, sozial eta kulturaletik abiatuta.

Horretan ari da Usurbilgo Udala azken urteotan, erronka globalei tokiko erantzun komunitario propioak eraiki eta ikuspegi sistemikoz eman nahian, instituzio publikoaren eta herri eragileen lidergo konpartituaren pean eraldaketa prozesuak behar duen gobernantza eredu kolaboratiboa eraikitzen dabil, horretarako, arlo ezberdinetan eragile ezberdinen arteko lankidetzak publiko-komunitarioak eta aliantzak josiz. Hor kokatzen da, esate baterako, Usurbilgo HAPOa eta horren bueltan egindako lanketa.

Hain justu, **HAPOak tresna edo bitarteko bat izan nahi du denon artean eraikitako eta denontzako izango den Usurbil jasangarriagoa, inklusiboagoa, onuragarriagoa, eta bizigarriagoa bihurtzeko, euskara garapen komunitarioaren ardatz izango duena, inor baztertu edo atzean utziko ez duena, herrikideak zainduko dituena, eta usurbildarren arteko berdintasuna eta justizia soziala izango duena aspirazio gisa.**

Horregatik, **egungo hiri-eredua zalantzan jartzen du esku artean dugun HAPOak, eta hirigintza eko-feministaren irizpideak eta begiradak geure eginez, gertutasunean eta ingurumenaren eta herritarren zaintzan oinarrituriko herri ereduan sakontzen du.**

(2. diapositiba: 8-9. orriak)

Dokumentu honek, ordea, ibilbide luzea izan du. Ez da legealdi honetan jaiotzen.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Usurbilgo Udalak 2014ko maiatzean ekin zion Usurbilgo plangintza orokorra berrikusteko prozesuari, 2004-2013 urte bitartean onartutako arau subsidiarioak ordezkatzeko asmoz. Orduetik hona, hamaika azterlan eta dokumentu osatu eta onartu dira. Honatx adibide batzuk:

- 2014 Diagnostiko partekatua eta ingurumen aurrediagnostikoa
- 2015 Aurrerakina eta HAPOa idazteko Irizpide eta Helburuak
- 2015 Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren Hasierako dokumentua
- 2016 Ori ibaiaren paisaiarako ekintza plana. HAPOa idazteko parte hartze prozesuan azaleratutako gai bat Ori ibaia hainbat ikuspuntutatik -ingurumen, kultura, aisialdi, ondare, etab.- Usurbil herriaren ardatz nagusi bezala berreskuratzeko beharra izan zen. Ondorioz, 2016ko urrian Errioa bizi! Ori ibaiaren paisaiarako ekintza plana idatzi zen.
- 2017 Genero perspektiba eta eguneroko bizimodua usurbilgo espazio publikoan: espazio publikoaren eta mugikortasun iraunkorraren plana.
- 2020 Usurbilgo etxebizitza azterketa: Usurbilgo etxebizitza parkearen inguruko datuak eta etxebizitza premien inguruko datu bilketa
- 2020-21 Usurbilgo HAPOaren genero inpaktuari buruzko lanketa eta txostena
- 2020-21 ELE Hizkuntza inpaktuko azterlana
- 2022 Ingurumen Azterketa Estrategikoa
- 2022 Inpaktu Akustikoaren Azterlana
- 2022 Ondare azterketa. Aranzadi zientzia elkartearen kolaborazioarekin Usurbilgo Ondare katalogoaren azterketa egin da, katalogatutako elementuen zerrenda berrikusiz eta hainbat elementuren fitxa osatuz.

Horietako dokumentu asko HAPOaren dokumentuan jaso dira.

(3. diapositiba: 6-7 diapositiba)

HAPOa nola osatzen da? DOKUMENTUAREN ATALAK.

Nolakotasuna. Dokumentu honen ernamuinean **herritarren parte-hartzea eta adostasuna dago**.

Ikusi dugunez, 2015 urtean Usurbilgo udalbatzak plangintzaren IRIZPIDE ETA HELBURUAK onartu zituenean, zehaztu ziren lau HELBURU OROKORRETAKO bat HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN BEHARRA izan zela. Eta udalbatzaren mandatu horri erantzunez, parte-hartze prozesu ugari egin dira, izan auzoka, izan arloka. Ezin zuen bestela izan. Izan ere, Usurbilgo Plan Orokorra idazteko prozesuan ezinbestekoa izan da herritarren parte hartzea sustatzea, herritar orok duelako zer esana guztion ondarea diren auzo, herri eta lurraldearen etorkizuna zehazterakoan. Interes orokorra oinarri, herritarren ikuspuntua eta bizipenak jasotzea behar-beharrezkoa izan da eguneroko bizitzari eta etorkizuneko erronkei erantzungo dien planeamendu bat egiteko.

(4. diapositiba: 10.orria)

Orduetik hona, plan orokorraren testuinguruan parte hartze prozesu ugari egin dira, honako hauek, besteak beste:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

2014-15: HAPOaren idazketa abiatzeko, 2014ko ekainetik 2015eko martxora USURBIL ORAINA DA GEROA PARTE HARTZE PROZESUA burutu zen.

2016: USURBIL KALE IREKIAK parte hartze prozesua: ESPAZIO PUBLIKOAREN ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN plana idatzi zen.

2017-2018an Aginagako herrigunea antolatzeko proposamena egiteko, parte-hartze prozesu bat egin zen bertakoekin.

2020: Aginagan egin zen moduan, Zubietan ere “Guk Zubietan Zer” izeneko parte-hartze prozesu propioa egin zen HAPOaren inguruko hausnarketa eta bertako errealitatea eta beharrak identifikatzeko helburuz. Prozesu hau Zubietako Herri batzarrarekin eta Donostiako Udalarekin elkarlanean burutu zen.

2021: Kalezar auzoan bertako bizilagunekin HAPOaren proposamenen inguruko aurkezpen saioa burutu zen.

2021-22 “Santuenea Elkarlanean” auzo plana osatu zen; auzoa modu integralean landu eta Santuenearentzat agenda partekatu bat markatzen duen tresna. Prozesua auzoan osatutako talde eragileak gidatu du kanpo aholkularitza tekniko batek lagunduta.

Herritarrekin batera landutako prozesu hauetako ondorio eta edukiak HAPOan txertatu dira, beraz, dokumentuaren luze zabalean, ikus daitekeenez.

Adostasuna aipatu dut. Ez da hitz hutsala. Nabarmentzekoa da, halaber, lur-jabe pribatuekin lortutako hirigintza-hitzarmenak, hala nola Zapategiren garapen industrialia, Olarriondoko hirigintza antolamendu berria, Aginagako Elutx eremuko garapena, Eusko Trenbide Sarearekin (ETS) lortutako akordioa tren geltoki berria egiteko edota Matiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lortutako adostasuna N-634ean autobus geltoki berria eta igogailua egiteko.

Indarraldia: Hiri antolamenduko Plan Orokor baten indarraldia, dokumentu juridiko den aldetik, mugagabea den arren (aldaketa puntual posibleak formulatu eta haren zehaztapenak berrikustearen baldintzapean), plan orokor honek jasotako hirigintza-proposamenak 15 urteko aldiari erantzuten dio. Epemuga hori bat dator Usurbilen egindako azken hirigintza plangintzekin: 2004an onartutakoak 18 urteko indarraldia izan du, 1992an onartutakoak 12 urtekoa eta 1964koak 28 urte,.

Jarduketa programa. Usurbil modu orekatuan eta ordenatuan hazi eta garatzeko ezinbesteko tresna da. Herriaren beharren arabera programazioa aurreikusi da.

(5. diapositiba: 12-13-14. orria)

HAPO-AREN EDUKI NAGUSIAK, ARLOKA ZEIN LURRALDE EREMUKA



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Lehen aipatu dut, zer-nolako herri ereduan sakontzen duen HAPO-ak: egungo hiri-eredua zalantzan jartzen du esku artean dugun HAPOak, eta hirigintza ekofeministaren irizpideak eta begiradak geure eginez, gertutasunean eta ingurumenaren eta herritarren zaintzan oinarrituriko herri ereduan sakontzen du.

Hori dena nola islatzen da HAPOan?

Trantsizio ekologikoaren alde egiten duen herria

Usurbilgo HAPOak **lurraldearen zaintza eta haren balioak babestu eta sozialki eta ingurumenaren ikuspegitik jasangarria den antolamendua bultzatzen du.**

Hiri garapena mugatzen du: 2004ko arau subsidiarioez geroztik urbano/urbanizagarri diren hainbat lurzoru desklasifikatu eta lurzoru ez urbanizagarri bezala jaso dira: guztira, 18 ha gutxitu da (klasifikatuta zegoenaren %9,4).

Nekazaritza. Hiri garapenetik babestutako lur horietako asko, balio agrologiko altuko lurzoruak dira, eta nekazaritza erabileretarako babesten dira, bestelako erabilerak debekatuz edo mugatuz. Lur horiek nekazaritza sektorearentzat eta elikagaien ekoizpenari begira estrategikotzat eta gizarte intereseko ondasuntzat jotzen dira, eta lurzoru horien udal-erreserbak mugatzeko aukera ezartzen da, lurzoruaren ondare publikoan sar daitezen. Oriako erriberako lurak eta balio agrologiko altuko herriko lurak estrategikotzat izendatzen dira.

Babeserako basoa. Lurraren eta uraren babeserako basoek duten garrantzia, eta basoen bioaniztasuna aintzat hartuko duten babeserako baso eremuak mugatu dira, non helburua izango den lurra higaduraren aurrean babestea, erregimen hidrológicoa erregulatzea eta lurrazpiko uren babesa, azpiegiturak babestea, klima aldaketaren kontrako borroka, dibertsitate biologikoa kontserbatzea, baso sutearen arriskua murriztea eta paisaia kontserbatzea.

Babes bereziko guneak. Udalerriko natur balio handiko eremuak bereziki babestea proposatu da, horien artean Oria Itsasadarreko Natura 2000 sareko eremua, Usurbilgo hezeguneak, Itzao eta Izoztegiko hariztiak edo Mendizorroitz Natura 2000 Sarean sartzeko proposamena egin da.

Ura. Plan honek Usurbilgo urak babesteko neurriak ere proposatzen ditu. Hala, tokiko bioaniztasuna, baliabide hidrológicoen eta paisaiaren kalitatea bultzatzen dituen garapena sustatzen da. Esate baterako, ur baliabideak (lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak) babestu, zaindu eta leheneratzeko proposamenak jasotzen dira: besteak beste, Erroizpeko iturburuak, urtegia eta arroa babesteko proposamena egiten da, Usurbilek duen ur ondare eta baliabide garrantzitsuenetako bat baita.

Ibaia, uholde arriskua. UR-agentziek, hondamen-arriskuei buruz jasotako datuen arabera, Usurbilen uholde-orbanek (Oria ibaiari loturikoak) 262 ha-ko azalera hartzen dute, eta horietatik 202,5 ha lehentasunezko fluxu eremuaren barruan daude. Horregatik, HAPOak



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

ibaiari, ahal denetan, bere lur-inguruak bueltatzea proposatzen du, esate baterako, Zubietan, Zingirategi eta Zumartegin.

Energia. Energia kontsumoa murriztuko duen Usurbil bat lantzen da, eraginkortasuna hobetu eta autokontsumora bideratutako energia berriztagarrien instalazioak erraztuko dituen, beti ere, lehenetik dauden eraikin eta teilatuak lehenetsiz.

Hondakinak. Usurbil 0.0 bidean, etorkizuneko Usurbilen, hondakinen murrizketa eta berrerabilpena lehenetsiko da, eta sortzen diren hondakinak, ahal dela, bertan tratatzea bultzatuko da, bilketarako, hondakin gelen erabilera hedapena aurreikusten da.

Ondarea. Interes historiko-artistiko eta kultureko elementuak babestu dira. Ondare katalogoa berritu da, Aranzadirekin. Lurzoru urbanizaezineko baserrien biziraupena sustatzeko eta ondare arkitektoniko eta kultural horri eusteko, baserrien zatiketa ahalbidetuko da.

(6.diapositiba: 21.orria)

Mugikortasun unibertsala, jasagarria eta inklusiboagoa: 8-80 herria helburu

Oinezko eta bizikleta bidezko joan-etorriak indartzeko lotura berriak sortu dira, bai herrigunean bai auzoen artean. Herri barruan lehentasunezko oinezko eremuak ugaritu dira, eta mugikortasun aktiborako sarea indartu da. Garrantzia handia eman zaio auzoen arteko oinezko/bizikleta loturak ahalik eta funtzionalenak eta erosoak izateari, eguneroko bizitzaren mugikortasun beharrei erantzun diezaioten, eta ez horrenbeste aisialdiari.

Irisgarritasuna. Lau hiri-igogailu publiko egitea proposatzen da. Kalezar auzoari dagokionez, bi esku-hartze jasotzen dira: bat, Portalmusubera eremuko igogailua, lotura irisgarriekin Puntapax kalera eta herrigunera; bestea Kalezar auzoa N-634 errepidearekin lotuko duen igogailua da (bi izango dira), Matiaren egoitzaren plaza berriari lotuta. Beste bi igogailuak, berriz, Etxealdian aurreikusi dira: bata auzoa eta kaxkoa lotuko litzuke, eta besteak tren geltoki berriaren egingo dira.

Aparkalekuak: herrigunean oinezkoen lehentasuna emateko helburuz, herrigunearen kanpoaldean hiru aparkaleku aurreikusi dira: Portalmusuberan, Olarriondoko eremuan eta Etxealdian. Nabarmenezkoa da, baita ere, Santuenean eraikitzea aurreikusten den aparkalekua, auzo-planeari jaso bezala.

Garraio publikoa indartzen du. Bereziki, ETSko tren zerbitzua hobetzea eta indartzea bultzatu nahi da, herriguneko tren geltoki berriekin eta hara iristeko loturak hobetuz. Kalezarren, N634ean, autobus geltoki berria egitea proposatzen da, geltokia eta auzoa lotuko dituen igogailuarekin.

(7.diapositiba: 23.orria)

Errepide sarea. N-634 errepidean hainbat esku-hartze proposatu dira trafikoa baretzeko,



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

segurtasuna handitzeko eta errepideak sortzen dituen hainbat eragozpen gutxitzeko:

- Aginagan herria bitan zatitzen den errepide zatian abiadura baretzeko neurri eraginkorrak.
- Txokoaldeko sarreran biribilgune berria bidegurutzearen eta autobus geltokien segurtasuna hobetzeko.
- Herri sarreran biribilgunea sartu-irtenak ahalbidetzeko, herri barruko mugikortasuna hobetzeko eta Ugaldea industriagunera oinezko pasagune segurua ahalbidetzeko.
- Txikierdiko bidegurutzea birmoldatzea proposatzen da, industria inguruko trafikoa eta Zubietako zein Txikierdiko etxebizitzaren eremuko trafikoa bereizi ahal izateko.

(8. diapositiba: 24. orria)

Etxebizitzaren garapena

Usurbildarren beharrei erantzuteko asmoz, HAPOak etxebizitza eredu desberdinak sustatzen ditu.

Herriaren garapena mugatzearekin batera, arau subsidiarioetan antolatutako **etxebizitza berrien kopurua %16 inguru jaitzi da (200 etxe gutxiago)**. Guztira, plan orokorrak **723 etxebizitza berri** eraikitzeke aukera jasotzen du: %9,5 Aginagan, %1,5 Txokoalden, %8 Zubietan eta %81 herrigunean.

Etxe berrien artean, **babestutako etxebizitzaren kopurua nabarmen igo** da. Hala, antolatutako etxebizitzaren %57 merkatuz kanpoko etxebizitza babestuak izango dira: %43 babes ofizialeko etxebizitzak eta % 14 etxebizitza tasatuak.

Garapen orekatua helburu. Antolatutako etxebizitza kopurua altua dela jakitun, honi aurre egiteko eta hazkunde orekatu bati eusteko HAPOren **esku-hartze berrien programazioa epe luzera eta faseka** egin da eta, gainera, aukera ematen du programazioa berrikusi eta herriaren beharren arabera programazio hori berrikusi, moldatu eta denboran luzatzeko.

Bertakoei lehentasuna: babestutako etxebizitzetan usurbildarrek lehentasuna izatea bilatuko da.

Udal etxebizitzak, alokairura: udalak eskuratzen dituen etxebizitzak, orain arte bezala, alokairura bideratuko ditu.

Kale biziak helburu, eraikinen beheko oinen tratamendua zaindu da, eraikinen beheko oinen eta kalearen arteko harremana kontuan hartuta. Beheko oinetan merkataritzarako edo ekipamendu publikoko erabilera ezarri da, posible ikusi den lekuetan. Etxebizitza erabilera ezarri denean, aldiz, etxebizitzaren eta kalearen arteko harremana bilatu da, ahal den neurrian, kalearekiko guztiz itxiak izan ohi diren jabetza pribatuko terrazak edo garajeetako pareta itsuak saihestuz.

Enkontruetarako espazioak. Eraikinetan erabilera komunitarioa izango duten enkontrurako



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

espazioak izango dira, beheko oinetan kokatuak: bizikletak, haur-aulkiak edo antzekoak gordetzeko gelak eta hondakin gelak.

Kalitatezko espazio publikoak sortu dira etxebizitzaren inguruan, baldintza klimatiko egokiek eta elkarbizitza eta herriko bizitza errazteko.

Hiri-sistema efizientea diseinatu da, baliabideen kontsumoa gutxitzeko helburuarekin.

Landa-eremua hustea saihesteko, baserrien segregazioa erraztuko da kasu gehienetan.

Jarduera ekonomikoa

Helburua da jada okupatuta dauden industria eremuak berrantolatu eta berreskuratzea, jarduera ekonomiko berriak erakartzeko, ahalik eta lurzoru berri gutxien okupatuz.

Azken urteotan, enpresen birmoldaketa edota itxierengatik, **bi industria eremu** garrantzitsu gabe geratu da Usurbil: Zapategi eta Zingirategi. Biak ala biak birgaitze integrala beharko duten kutsatutako lurzoru industrialak dira. Zapategiaren kasuan, Usurbilgo Udala arau subsidiarioen aldaketa puntuala tramitatzen ari da egun, eremu industrial hori berreskuratzeke: jarduera berriak ezarriko dira han, tartean, Gureak enpresa. Zingirategiaren kasuan, eremua berreskuratzeke planteamendua egiten da HAPOan, erabilera mistoko eremua sortuz. Bi partzela horiez gain, udalerriko beste zenbait industrialde nahiko zaharkituta daude, eta lur berriak okupatu beharrez, HAPOaren helburua horiek biziberritzea da.

Herriko merkataritzari balioa eman zaio. Tokiko merkataritzak jarduera ekonomiko moduan duen garrantzia sustatzen da, herrigune bizia eta gertutasuna sustatzeko duen garrantzia aintzat hartuta. Hala, antolaketa berriak ez du merkataritza gune handirik garatzeko aukerarik ematen, ezta jada udalerrian badagoen merkataritza-gune handia handitzeko aukerarik ere.

Lehen sektorearen garapen ekonomikoa sustatzeko: lurrak nekazaritza erabilerako babestea bermatzen da.

Zaintzen duen herria

Zaintza modu integralean ulertzen da, eta herrikideak eta komunitatea zaintzeko espazioei garrantzia handia ematen zaio: ekipamendu komunitario sarea eta espazio publiko eta berdeguneen sarea indartzen da, herrigunean ez ezik, auzo guztietan.

Ekipamendu sarea indartu da, hala nola emakumeen etxea sortzea, musika eskola handitzea, Aranerreka handitzea, Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa, zaintzadun etxebizitzaren auzunea, eta, bereziki, auzoetan bertako komunitatea indartzeko auzo-ekipamenduak sortu dira, esaterako, Txokoalden eta Kalezarren.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Espazio publikoa eta berdeguneen sarea ere indartu da, izan azalera handikoak (Aranerrika edo Zumartegi eta Zingirategiko ibaiertzaren lehengoratzea) edo eskala txikikoak. Kalitatezko espazio publikoak sortzea estrategikotzat jo da, topagune direlako, herrian bizi-kalitatea bermatu eta komunitatea egiteko leku direlako.

(9. diapositiba: 28.orria)

AUZO/HERRIEN NORTASUNA ETA BEHARRAK lehenesten dituen herria

Usurbilgo udalerriak dituen lurralde- eta gizarte-ezaugarriak kontuan hartuta, Plan Orokorraren lanketa prozesuan arreta berezia jarri da Usurbil osatzen duten auzo/herri horietan eta bakoitzak dituen ezaugarri, behar eta errealitate propioan. Hau da, lurraldea artikulatzea bai kaxkoko eta baita auzoetako bizigarritasuna bilatuz, eta auzo bakoitzeko komunitateak mantentzeko, indartzeko eta bizi kalitatea hobetzeko asmoz.

Hiru lurralde eremu osatu dira, eta eremu bakoitzerako proposamen integralak landu dira:

1. AGINAGA / URDAIAGA EREMUA

AGINAGA

MUGIKORTASUNA, ESPAZIO PUBLIKOA ETA BERDEGUNEAK

Aginagako herri-konfigurazioan, espazio gehiena lursail pribatuek hartzen dute, eta garrantzitsua da etxebizitza garapenek kalitatezko espazio publiko berriak eta euren arteko loturak eta sarea sortzea. Horietaz gain, esku-hartze nagusiak honako hauek dira:

Kaxkoa oinezkotzea: bertako espazio publikoa hobetzeko pilotaleku ingurua berrantolatzea proposatzen da. Autoak elizaren ingurura frontoi atzetik edo N-634 errepidetik sartzea proposatzen da.

N-634 errepidea baretzea herrigunea zeharkatzen duen zatian: 50km/h-ko abiadura errespetatzeko elementuak txertatzea; ibilgailuen biraketak hobeto antolatzea eta, beharrezko bada, arriskutsua den sarbideren bat ixtea; autobus geltokiak indartzea eta oinezko espaloien baldintzak hobetzea.

EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO SAREA

Etxebizitza garapen berriekin, besteak beste, Aginagako ekipamendu sarea indartzea bilatzen da, bertako komunitatea indartzeko. Ekipamendu horiek eguneroko behar komertzialerako ere erabili ahal izatea aurreikusten da (auzoko denda, esaterako), jarduera ekonomiko soil bat baino oinarrizko zerbitzua dela ulertzen baita. Elutx eta Etxe-Lore eremuetan ekipamendu lokal bana antolatu da.

GARAPEN EREMU NAGUSIAK

TXAGAINETA: industria jarduera handitzeko aukera ematen da, egungo antolamendua



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

finkatuz.

ELUTX: Garrantzi berezia du oinezkoentzako lotura berriak, Elutx inguruko bizilagunak herrigunera -bereziki, haurrak eskolara-, joateko N634 errepidera irten behar izatea saihesteko. 27 etxebizitza berri antolatu dira (11 sozial, 4 tasatu eta 12 libre), baita ekipamendu komunitarioko lokal berri bat ere.

ETXE-LORE: eraikita dagoen ingurua berroneratzen da, espazio publiko eta etxebizitza berriak eta ekipamendu komunitariorako lokala sortuz (34 etxebizitza, guztira: 9 sozialak, 6 tasatu eta 19 libre)..

ARROBIGAIN: utzita dagoen eremua berrantolatu eta aparkaleku bat sortzen da (4 etxebizitza libre).

TXOKOALDE

MUGIKORTASUNA ETA ESPAZIO PUBLIKOA

N-634 errepidean, Txokoaldeko sarrera parean, biribilgune berria antolatzen da, auto gidarien, oinezkoen eta garraio publikoko erabiltzaileen segurtasun baldintzak hobetuz.

Aginagarekin eta Usurbilgo herrigunearekin oinezko/bizikleta lotura indartzea erriberatik doan sarea indartu eta hobetzea.

Bidegorri sarea Txokoaldetik Orioraino zabaltzea.

Txokoalden ETS-ren tren zerbitzua berreskuratzea, bizi baldintzak hobetzeko eta autoarekiko dagoen ezinbesteko menpekotasuna murrizteko.

GARAPEN EREMU NAGUSIAK

OSASUNA. Helburu nagusia Txokoaldeko plaza egituratzen duen eraikina berreraikitzea da, batetik, etxebizitza berriak sortzeko, eta, bestetik, beheko oinean dagoen eta auzotarren bilgune den elkartea berritzeko. Hala, egungo partzelak dituen muga barruan eraikin handiago bat antolatzen da, Osasuna etxea ordezkatzeko duena. Beheko oinean dagoen elkartearen lokala berreraiki eta handitzearekin batera, ekipamendu publiko bihurtzea lortzen da. Guztira 5 etxebizitza libre antolatu dira.

BEKOERROTA. Erretako erakina berreraikitzeak aukera ematea da, babes ofizialeko etxebizitzak egiteko eta, bide batez, errota berreskuratzeak.

SAN ESTEBAN

San Esteban auzoa bere horretan finkatzen da. Bi espazio handitzeko aukera jasoko da: Leizekaldea parkea handitzeko eta Usurbilgo bertako uraz hornitzeko depositua handitzeko.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

(10. diapositiba: 32. orria)

KAXKO INGURUKO EREMUA

HERRIGUNEA-KALEZAR

AGERREAZPI eremua

Eremu honen zati bat 2011n hasi zen garatzen, eta oraindik 60 etxebizitza libre eraikitzeke daude.

PORTALMUSUBERA eremua

Garapen honen helburu nagusia lotura funtzioa egitea da. Izan ere, eremu honen bitartez, Kalezar auzoa eta bertan eraikitzen ari diren Matiako egoitza eta Ugartondo eremua Usurbilgo hainbat eremurekin lotuko lirarteke, modu irisgarrian; izan Aranerreka zeharkatuz zerbitzu eta ekipamendu gehienak dituen Usurbilgo herrigunearekin edo Puntapax kalearekin.

Horretaz gain, parke atarian espazio berde bat sortzen da, egun eremuan dagoen baratze erabilera mantentzen da lur horiek publiko bihurtuz, erabilera komertzialeko lokal bat antolatzen da (egun Kalezarren ez dago bat bera ere) eta soto azpiko aparkaleku bat antolatu da Kalezarko gabeziari erantzuteko.

Etxebizitzak: 33 etxebizitza guztira, 8 sozialak, 6 tasatu eta 19 libre.

PIKAOLA eremua

Lurzoru degradatuko eremua da. Lehentasunezko eremua ez bada ere, udala lur hauen zati baten jabe da, eta etorkizuneko udal-etxebizitza politikarako interesekoa da eremu hau mantentzea.

Etxebizitzak: 38 etxebizitza guztira, 27 sozialak, 0 tasatu eta 11 libre.

UGARTE eta GAZTAÑAGA baserriak

Helburua babestuta dauden bi baserri horiek berreraikitzea da, haien balio historiko eta arkitektonikoa mantendu eta herriko memorian duten balioa aitortuz.

(11. diapositiba: 36. orria)

OLARRIONDO eremua

Arreta handiz landu da, herriaren garapenerako eremu garrantzitsua delako.

Olarriondo eremua modu jasangarrian eta orekatuan garatzeko hitzarmena lortu du udalak



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

lur-jabe guztiekin: Usurbilentzat lor genezakeen akordio onena, egungo arau subsidiarioetan dagoen garapena neurritz kanpokoak baita. Azken 20 urteotan 495 etxe eraiki dira Usurbilen (Ugartondo barne); Olarriondon, aldi berean, 409 etxe eraikitzea zen asmoa.

Eraikigarritasuna nabarmen murriztu dugu (%35): 316 etxe eraikitzeak aukera jaso da, gehienak, babestuak (babes ofizialekoak 180, tasatuak 62 eta libreak 74). Sektorea ez da aldi berean garatuko: lau azpieremutan banatu dugu, eta fase bakoitzari lotutako urbanizazioak herri bat sortzea ahalbidetuko du, etorkizuneko beste faseen menpe egon gabe.

Hirigintza jasangarri eta ekologikoko irizpideak nagusitu dira: eko-auzo bat sortuko da (auzoa oinezkoentzat izango da, artifizializatutako lurzoruak murriztu dira, berdeguneak eta naturarekin kontaktuan dauden eguneroko bizitzarako elkarguneak izango ditu...)

Erabilera nahasketa bultzatzen du antolamendu berriak, funtzio eta erabilera anitzeko eremu bizia sortu eta lotarako auzo bat sortzea saihesteko.

(12.diapositiba: 47-48-49.orria)

HERRIGUNEA HEGOA – ETXEALDIA – TREN GELTOKIA – SANTUENEA

Kaxkoko garapenak azken urteetan ipar-ekialderantz hazteko izan duen joera sortzen ari den desoreka zuzendu nahi du antolamendu berriak, herriguneko hegoaldeko zatia eta, zehazki, tren geltoki ingurua eta Santuenerako bidea biziberritzeko. Horretarako, tren geltoki ondoan, industria eremuaren (Ingemar zena) antolamendu berria proposatu da: **Zingirategi**.

Santuenea eta Usurbilgo kaxkoaren artean hiri-kontinuum edo jarraitutasun aktibo eta askotarikoa sortzea ahalbidetzen du, tren geltokiarekin lotuz, ardatz seguru eta bizia sortzeko.

Mugikortasun aktiboa. Santuenea eta herrigunea lotuko dituen bizikleta bidea egitea lehenetsuzkotzat jotzen da. Lotura hori Txikierditik Txokoalderaino doan bizikleta sare nagusiaren zati bat izango da.

Erabileretan anitza izango den eremua berregituratzea izango da helburua: industria arineko erabilerak (13.500 m²(t)), hezkuntza ekipamendua (Zubietako Lanbide Eskolaren handitzea), etxebizitzak(70 etxebizitza guztira, 20 sozialak, 13 tasatu eta 37 libre), tokiko merkataritza eta zerbitzuak nahastea proposatzen da. **(IR-17)**

Etxealdiako eremua ere sortzen da eta han 37 etxebizitza eraikitzeak aukera jasotzen da, 12 sozialak, 4 tasatu eta 21 libre

MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

TREN GELTOKI BERRIA ETA PASABIDEAK N-634/TRENBIDE GAINEAN: garraio publikoko tren zerbitzua hobetzeko eta geltokirako bidea zein herrigunea eta Atalluren arteko oinezko eta



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

bizikleta bidezko lotura hobetzeko esku-hartzea da, egungo trenbide gaineko pasabidea kendu eta segurtasun zein irisgarritasun baldintzak bermatuz. Epe motzean exekutatzeko aurreikusten da.

HIRI-IGOGAILU PUBLIKOA ETXEALDIAN: Etxealdia auzoa eta Kaxkoa lotzeko auzotik Kale Nagusira doan igogailu publikoa egitea proposatu da auzoko irisgarritasuna hobetzeko.

DISUASIOKO APARKALEKUAK: Etxealdiako eta Santueneako disuasio aparkalekuak jaso dira, espazio publikoak oinezkatzeko aukerak zabaltzeko.

ERREPIDE SAREA: N-634 - BIRIBILGUNE BERRIA HERRI SARRERAN: N-634tik herrirako egungo Bizkarreko sarreran biribilgunea eta harekin batera herrigunetik Ugaldea industrialdera oinezko eta bizikleta bidezko lotura egiteko esku-hartzea jaso da. Biribilgune honek herrirako sarrera ez ezik irteera egitea ahalbidetuko luke Aginaga edo Oriorako norabidean.

ORIAKO IBAI ERTZA, PARKEAK ETA ESPAZIO PUBLIKOA

ZUMARTEGIKO ETA ZINGIRATEGIKO IBAIERTZAK BERRESKURATZEA: herriguneak Oria ibaiarekin muga egiten duen eremuetan ibaiertza leheneratu eta parke eremua sortzeko esku-hartzeak jaso dira. Batetik, Zumartegi industrialdeko ibaiertz ia osoa berreskuratuko da helburu hauekin: baldintza hidraulikoak hobetzea, ibai ertzeko ekosistema eta ingurumen baldintzak hobetzea, eta Oria ibaiaren paisaia eta herritarrek harekiko duten harremana berreskuratzea. Bestetik, Zumartegiko ibaiertzean egingo denari jarraipena eman eta Zingirategiko antolamendu berriak antzeko esku-hartze bat jasoko du. Halaber, trenbidearen zubi azpitik pasako den eta bi eremu hauek lotuko dituen oinezko lotura aurreikusten da.

SANTUENEAKO IBAIERTZEKO PARKEA: Santueneako Auzo Planak proposatutako ibaiertzeko espazio publiko berria jaso da.

KALE NAGUSIKO PLAZA: Kale Nagusian, Etxealdiara eta Oria ibarrera begiratuko duen plaza publikoa sortzea proposatzen da, Etxealdiako garapenaren bitartez. Espazio hori Kale Nagusiaren "atari" izango da, herrigune historikoa hasten den tokian.

ETXEALDIA auzoan espazio publiko-parke berria egitea proposatzen da. Parke horri lotuta, lurperatuta dagoen Aranerreka lehengoratu eta azaleratzeko aukera txertatu da.

EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO SAREA

LANBIDE ESKOLAREN HANDITZEA. Hezkuntzarako ekipamendu partzela berria antolatu da Zingirategin. Kokapen honetan, enpresez inguratuta egonik, enpresen eta hezkuntza zentroaren arteko elkarlana eta sinergiak sustatzeko aukera ematen du.

EKIPAMENDU LOKALA eta PARTZELA. Etxealdiako etxebizitza eraikin berrietan ekipamendu komunitarioko lokala eta Santueneako zubi ondoan, eremu berrian ekipamendu partzela bat antolatu dira.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

SANTUENEA: auzoan bertan landutako Auzo Planean jasotako proposamenak jaso dira, besteak beste, auzoko eraikinen energia-eraginkortasunaren eta irisgarritasun unibertsalaren baldintzak hobetuko dituzten esku-hartzeak baimentzeko aukerak emanez.

(13.diapositiba: 50.orría)

3. ZUBIETA / TXIKIERDI EREMUA

ZUBIETA

ORIA IBAIARI LEKUA EGIN, INDUSTRIA PARTZELA BERRANTOLATU ETA IBAI PARKEA SORTU: Zubietako Aliri zubi ondoan, jarduera industrialeko ibaiertzeko eremua berrantolatzea proposatzen da, uholde arriskuak txikitu eta ibai parke bat sortzeko helburuz. Egun aktibo dagoen eremu industrialaren zati bat lehentasuneko fluxu-eremuan kokatzen da, eta partzela industrialaren plataforma osatzeko betelana oztopo da ibaiaren fluxuan. Antolamendu berriak, egungo jarduera industrialak eteten denean, lehentasuneko fluxu-eremua libratu eta bertan dauden oztopoak eta betelanak kentzea proposatuko du. Halaber, fluxu-eremutik kanpo, eremuaren antolaketa berria ahalbideratuko duen etxebizitza garapen txikia egitea proposatzen da: 21 etxebizitza (5 sozialak, 4 tasatu eta 12 libre). Esku-hartze honetarako URA ur agentziarekin elkarlana sustatuko da.

IBAI-ERTZEKO PARKEA: Uholde arriskuak gutxitzeaz gain, antolamendu berri honek lehentasuneko fluxu-eremuan ibai parkea sortzeko helburua du, Artsuagako parkearekin batera, Oria ibaiertzean espazio libre/parke eremu garrantzitsua sortuz, Donostiako HAPOak, hala erabakiko balitz, antolatu ditzakeen ibai-ertzeko espazio libreko eremuekin batera.

(14.diapositiba: 55.orría)

ERROTABIDE EREMUA: eremu honen helburua Zubietako etxebizitza beharrei erantzutea da, gehienbat, gazteei begira. Hala, babes sozialeko etxebizitza eremu berria sortzea proposatzen da, baita ekipamendu komunitarioko partzela bat ere (28 etxebizitza: 23 sozialak, 5 tasatu eta 0 libre).

TXIKIERDI

IBAI INGURUKO ESPAZIO LIBRE-PARKEAK: Artsuagako parkea Txikiardiko etxebizitzetara eta Oriako ibaiertzerara are gehiago irekitzea bilatzen du. Hortaz, errepide lotura berria proposatzen da, inguru horretako trafikoa murrizteko.

Zapategi garapen berriko eremuak Oria ibaiertzeko lurak hiri-lurzoru bezala izendatzen ditu, lur horiek ibaiaren babeserako lur publikoak izateko espazio libreko sistema orokor moduan. **MUGIKORTASUN AKTIBOA:** Txikiardi eremuko oinezko eta bizikleta bidezko loturak indartzea proposatzen da, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin berri duen Urbil inguruko bizikleta-bideari jarraipena emanez Usurbilgo kaxkoraino.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

GARRAIO PUBLIKOA – TREN GELTOKIA: Joan-etorri kopuru altuak eragiten dituen industria eta merkatalgune jarduera eremua da, eta gehienak kotxe pribatuan egiten dira. Garraio publikoa sustatzeko giltzarria da Euskotreneko geltoki zaharra berreraikitzea. Tren geltokiarekin batera, trenbidea gainditzeko eta egungo aparkaleku eremura iristeko igogailua ere eraiki beharko litzateke.

EKIPAMENDU KOMUNITARIOAK – ESPAZIO LIBRE/PARKEAK

ATSOBAKARREKO KIROL EKIPAMENDUA ETA PARKEA: Usurbilgo udalerrian kokatuta badaude ere, Lasarte-Oriako Udalarenak diren lur hauetan kirol ekipamendu berria garatuko du Lasarte-Oriako Udalak: atletismo pistak dituen futbol eta errugbi zelai berria egingo dute bertan. Ondoko lurak bere horretan mantenduko dira Atsobakarreko parkea izendatuz.

(15.diapositiba: 58.orria)

GARAPEN EREMU NAGUSIAK

ZAPATEGIKO INDUSTRIA EREMUA: Michelinen kokapena izan zena eremu degradatua da egun, eta asmoa da eremu hori berrantolatu eta erabilera industrialak mantenduz jarduera ekonomikoetara bideratzea. Bi partzela antolatu dira, eta horietako batean Gureak kokatuko da.

Eremuan guztira 24.000m²(t) industria antolatu dira, eta horrekin batera eremuak Urbil eta Oria ibaiaren ingurua lotzen ditu partzelaren ertzean antolatzen den oineko/bizikleta bidearekin.

(16.diapositiba: 11.orria)

HAPOaren izapidetzea. Noiz sartzen da indarrean? Bi urte beharko dira horretarako, honatx hurrengo urratsak:

- **HAPOaren hasierako onarpena.** Urriaren 13ean egindako ez-ohiko udalbatzan.
- Gainerako administrazioei horren berri emango zaie, jakinaren gainean egon daitezkeen eta dagozkion txostenak egin ditzaten.
- **HAPOa jendaurrean jartzea.** Hasieraz onartu den dokumentua jendaurrean jartzen da hiru hilabetez, herritarrek egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten. Urtarrilaren 31era arte izango da jendaurrean. HAPOa gizarteratzeko kanpaina sustatuko du udalak.
- **Behin-behineko onarpena.** Beste fase garrantzitsu bat da. Jendaurreko erakustaldian egindako alegazioak eta oharra ebaztea da helburua eta HAPOan txertatzea. Behin-behinean onartutako dokumentua Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera igorri behar da.
- **Behin-betiko onarpena.** **Usurbil 7.000 biztanletik beherako herria izaki, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio behin-betiko onarpena ematea. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.**



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Jarraian, Mirari Azurmendik, EAJ/PNV udal taldearen iritzia azaltzeko honako testua irakurri du:

“LANDA EREMUA

Usurbilgo plan orokorrak guztira 2577 Ha sailkatzen ditu. Hauetatik, %93 lurzoru urbanizaezina da, hau da, ia 2400 Ha landa eremutzat hartu daitezke.

Eremu honetan, erliebearen konplexutasunak paisaia konfiguratzen du, ekoizpen-ahalmena mugatzen du eta populazioa finkatzea baldintzatzen du. Nolanahi ere azpimarratu behar da, osagai fisikoa bezain garrantzitsua dela eremuaren historia soziala eta ekonomikoa. Baldintza guzti horiek direla eta, gure landa lurretan baserria finkatzen da ezaugarri nagusi bezala, familia-ustiapeneko eredu sakabanatua duena, eta biziraupeneko polilaborantza nagusi duena. Usurbilen gainera bereizgarri hauek ditu:

- hurbilean merkatu garrantzitsu bat, sektorearen ekoizpen osoa xurgatzeko gai dena
- eta hiri- eta industria-testuinguru txiki batean garatzen diren ustiategiak izanik, ustiategiko jarduera kanpo lanarekin konbinatzen ditu neurri handi batean.

Nekazaritza-paisaia formula nahiko uniformearen egituratzen da: zelai iraunkorrak eta polilaborantza eremu txikietan, artoa, lekadunak, baratzea eta fruta-arbolak konbinatuz; maldak handiagoak diren lekuetan, lursailaren baso-erabilera aukeratzen da.

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzak dute lehentasuna landa lurtean, bestelako erabilerak mugatuz edo debekatuz.

Hau horrela izanik, ez da ulertzen plan honetan, nekazaritza eta abeltzaintza industria berriak ez baimentzea lurzoru urbanizaezinean, adibidez HAPOak BALIO ESTRATEGIKO HANDIKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA izendapenean jasotzen dituen lurretan. Aldi berean ulertezina iruditzen zaigu, arrantza-industria berriak ez baimentzea, tradizio handiko industria izanik batez ere Aginaga auzoan.

Hau kontraesanean dago landa-eremuari buruzko planteamendu aurreratuenekin; gaur egun, oso onartuta dago landa-eremurako funtzio-aniztasunaren kontzeptua finkatzea. Horrek esan nahi du, ikuspegi ekonomiko batetik, industria-, artisau- eta merkataritza-enpresa txikiak instalatzeak interes handia duela, bai eta aisialdiarekin, turismoarekin eta atsedenarekin lotutako zerbitzuak emateak ere.

Bestalde, eremu honetan arau orokorrak hain beharrezkoak diren pistak eta bideak lursail pribatuetan debekatzen ditu, hauek batez ere basogintzan guztiz premiazkoak dira. Salbuespen gisa azterlan tekniko neketsu baten bidez udalaren baimena lortu ahal izatea ahalbidetzen da; beraz arau hau oztopo izugarria izateaz gain, ekonomikoki ez da bideragarria landa eremuko jarduera aurrera eramateko.

Landa ondare eraikia (baserriak) lehenesteko eta babesteko baldintza orokorrak oztopatzaileak dira, Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren 12.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Artikuluaren araututakoa baino murriztailegoak dira; nekez erantzungo die edo ez die erantzungo egungo eta etorkizuneko beharrei.

Energia berriztagarriak: eguzki plaken aipamena bakarrik egiten da eta hauek eraikinen teilatuetan bakarrik jarri ahal dira eta beti ere babestutako ondarearen kalterik gabe, eta aldiz teilatuan ezinezkoa bada ez da beste aukerarik ematen.

Irtenbide eskasa egun energiarekin dagoen arazoa ikusita energia berriztagarriak bultzatu behar diren unean.

HIRI ERABILERATAKO EREMUAK

Hiri-erabilerako 178 Ha jasotzen dira, hauetatik 171 Ha egun okupatuta daude, hau da jada hirilurzoru dira eta 7 Ha urbanizagarri proposatzen dira. Eremu desberdinetan antolatzen da azalera hau.

Antolaketa honi dagokionez, deigarria da, zenbait eremu urbanistikoaren artean jarraikortasun falta; honen adibide nabarmena da lartzako eremua, irla bat osatzen du naiz eta herrigunetik oso gertu egon, hirigintza-antolamenduaren perspektiba batetik.

Eremu batzuk irregulartasun nabaria azaltzen dute, esaterako Aginagan, non Elutx eta Ezpaldi eremuen artean dagoen landa lurra ez da urbanizagarria, horrek haustura bat dakar eta oso zatitua gelditzen da ingurunea.

Aldiz beste eremu batzuk, egungo egoera finkatzen dute baina etorkizuneko beharrei aurre egiteko inongo planifikaziorik gabe, hau nabarmendu egiten da herrigunean, Santuenean eta proposatutako industriaguneetan.

Azkenik Zubietan proposatzen den antolakuntza ez da bertako ekipamenduen inguruan zehazten eta etxebizitza kolektiboak modu isolatuan inguruarekin inongo loturarik gabe aurreikusten dira (Errota eta Errotabide eremuak).

ETXEBIZITZA

Hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako azalera oso ESKASA DA egungo hiri-lurzoruaren azalarekin ALDERATUTA eta kontutan hartuta datozen 20 urteetarako Usurbilgo beharrei erantzun beharko diela.

Orain arte indarrean egon diren arauak ez dira osotasunean bete bainan horrek ez du esan nahi, hurrengo 20 urteetan beharrik izango ez denik.

Hazkunderari oztopoak jartzeak ere bere ondorioak eragiten ditu, etorkizun hurbilean biztanlegoa gutxitzeak eta azkenean herrigune edo auzo bizitza eta auzoa bera desagertzea.

Bertan dugu honen adibidea, hau bera gertatzen ari da Aginagan esaterako, non azken bi hamarkadetan 4 etxebizitza bakarrik eraiki diren, eta betiko denda eta tarberna ixtearekin



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

batera herri-bizitza desagertzearen lehen sintomak ematen ari dira. Gaur Udalak proposatzen duen PLAN Orokor honetan, 69 etxebizitza proposatzen dira eta ez dugu uste honekin bakarrik aurre egingo zaionik gaur egungo Aginagako egoerari.

Proposatzen diren etxebizitzaren antolamenduari dagokionez bere osotasunean etxebizitza kolektiboko eraikinak dira. Ez da aurreikusten familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzaren tipologia, zenbait herri inguruetan, bakoitzaren ezaugarri eta berezitasunak kontutan hartuz proposak izan daitezkeenak, adibidez Aginaga, Txokoalde, Kalezar edo Zubietan.

APARKALEKUAK

Egun herriguneko zenbait auzoetan aparkaleku falta eguneroko arazo bihurtu da eta behar honi ez dio erantzunik ematen plan honek.

Gainera, egoera okerragotzeko autokarabanak kotxeentzako aparkalekuetan egoten dira, beraz hauentzat ere leku egoki bat prestatu beharko litzateke behar honi aurre egiteko.

AUZOAK ETA BERAIEIEN HARTEKO KOMUNIKAZIOA

Plan Orokorrak hiri-espazioak eta auzoen arteko komunikazioa hobetzeko, oinezkoentzat eta bizikletentzat azpiegiturak egiteko lur erreserbarik ez du proposatzen. Herrigune eta auzo guztien arteko bide-artikulazioa indartzea ez da asfaltoan edo espaloietan lerro berriak margotzea.

Auzo berriak, egungo auzoetako bide azpiegituratan oinarritzen dira; egungo azpiegiturak ez daude dimentsionatuta garapen berri hauei erantzuteko eta plan honek ez dio inolako irtenbiderik ematen arazo honi.

Herrigunea ipar-ekialdera zabaltzen ari da, eta herrigunerako sarrera- irteera berririk ez da aurreikusten plangintza honetan.

Gure ustez, ezinbestekoa da izaera orokorreko eta banatzaileko bide berrietarako lur erreserba jasotzea, bai oinezkoari, bai bizikletari eta bai autorari modu egokian bide emateko.

Honen adibide adierazgarri bat Etxealdia eremuan proposatzen denarekin ikus dezakegu. Etxealdia auzoarentzako egin den planeamenduak ez du aprobetxatzen kale nagusiari jarraipena emateko dagoen aukera paregabea eta auzoa eta herrigunearen lotura naturala ekarriko zuena, izan ere, udalerriko sarrera nagusia da, eta amaitu gabeko kale baten itxura eskaintzen du. Eremu honek, kota baxuan Txaramuntoko eremuarekin lotzeko aukera ematen du, eta honekin tokiko biarioa nabarmen hobetuko litzateke auzo osorako irisgarritasuna bermatuz. Bestalde, egindako planteamentuak, posibilitate gutxi ditu gauzatzeko; beraz datozen 20 urteetan ere ez da osatuko USURBILGO KALE NAGUSIA.

JARDUERA EKONOMIKOAK



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

KOMERTZIOA:

Herrigunean dagoen komertzioak aparkaleku arazoa pairatzen du, eta HAPOak ez dio erantzunik ematen merkataritzaren behar honi.

INDUSTRIA:

Zapategi eremuaz aparte ez da, industriarako lur berririk proposatzen datozen urteetara begira herriaren garapen ekonomikoa sustatzeko. Lan postuak sortzeko behar beharrezkoa ikusten dugu aukera zabalagoa eskaintzea.

INDUSTRIA ETA BIZITEGI ERABILERA NAHASIAK:

Zingirategin proposatzen dena ondo ikusten dugu baina, aurrera begira, enpresa- eta teknologia-parkeen erabilera mistoak sustatzea ere beharrezkoa ikusten dugu. Azken honekin, ezagutza, enpresa berritzaileak eta lankidetzak sortuko lirateke. Beraz, honetarako eremu gehiago erreserbatu behar lirateke.

EKIPAMENDU KOMUNITARIOEN SAREKO SISTEMA OROKORREI

Ekipamenduei dagokienez Eskola publikoa eraikitzeko erreserbako partzela falta da.

Herriguneko Kirol ekipamenduaren hazkuntzarako ez da ezer aurreikusten.

Hazkundearen ondorioz osasun sistema indartzeko ez da ezertxo ere aurreikusten.

ESPAZIO LIBREEN ETA PARKEEN SAREKO SISTEMA OROKORRAK

Zubietan proposatzen den ibai parkeak ez du inolako zentzurik gure ustez, ez bai dio Zubietako antolamendu orokorrerako inolako premiari erantzuten.

LABURBILDUZ, etorkizunari gutxi begiratzen dion eta oztopo ugari jartzen dituen plana dela iruditzen zaigu, proposatzen diren planeamendu batzuk oso nekez beteko direnak edo alde aurretik beteko ez direla jakinik egindakoak iruditzen zaizkigu, esaterako Etxealdiako plana.

Udal Gobernu honek gaur hemen aurkezten duen HAPO honek ez die Usurbilek gaur egun dituen arazoei irtenbidea ematen, eta, gainera, ez die erantzunik ematen usurbildarrek datozen 20 urteetan izango dituzten erronkei.”

Ondoren, Patxi Suárezek hitza hartu du eta ezer baino lehen HAPOa egiten ari diren guztiei eskerrak eman dizkie badakielako oso lan gogorra izan dela.

Jarraitu du esanez alde bozkatuko duela Etxealdia, Santuenea, Zubieta, Aginaga auzoetarako berak proposatu duena HAPOak jasotzen duelako.

Aginagan ere jasotzen dela dio etxebizitzaren eraikuntzaren planteamendua eta hori oso garrantzitsua dela dio tokiko entitate txiki bihurtzeko.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Bestalde, HAPO berriarekin bizitza herrigunetik auzoetara mugitzen dela uste du eta hori ere gustatzen zaiola esan du.

HAPO berria datorren 15 urteetarako egokia izan daitekeela uste du eta alde bozkatuko duela esan du.

Alkateak esan du aintzat hartzekoa dela ez bakarrik udal honen lana, baita ere herritar eta herri eragile askok egin duten lana HAPO honetan.

Jarraian, Mirariri zuzenduz alkateak esan dio bera alkate egon den hiru urte hauetan ez dutela proposamen bat bera ere egin. Aldian aldi udal gobernuak hirigintza batzordean proposamenak aurkeztu izan dituztenean, beti esan izan dutela dio prest daudela proposamenak jasotzeko, entzuteko, eztabaidatzeko, ausnartzeko, eta denentzat izango den HAPO bat osatzeko, baina tamalez ez dutela proposamen bat bera egin azpimarratu du.

Orain azaldu dituzten proposamen horiek behar zen garaian aurkeztu izan balituzte beharbada txertatuko zirela esan du, baina ez dutela horretarako aukerarik izan adierazi du eta harrিতa geratzen dela dio orain momentu honetan proposamen horiekin hona etorri direlako.

Egin dituzten proposamenen inguruan alkateak esan du batzuekin ados egon daitekeela beste batzuekin ez.

Auzoetan proposamenetan aipatu dutela dio Zubietakoak ez duela zentzurik, eta alkateak azpimarratu du zubietarrek beraiek behin eta berriz eskatutakoa izan dela ibaiari begira proposamenak egiteko.

HAPOan auzoetarako egiten diren proposamenak auzotarrekin parte-hartze prozesuetan landutakoak direla zehaztu du alkateak.

Ekipamendu publikoei dagokionez, HAPOak zerbait planteatzen badu horiek ekipamendu publikoak direla esan du eta aukera egongo dela dio ekipamendu publiko horietan osasun zerbitzuak instalatzeko, kirol ekipamenduak instalatzeko, hezkuntza ekipamenduak instalatzeko. Herria hazten doan heinean hazkuntza horrek ekar ditzazkeen behar berriei erantzuteko ekipamenduak izango direla zehaztu du. Beraz, EAJK ez direla ekipamenduak jasotzen dio eta hori ez dela horrela esan du alkateak.

Bistan geratzen dela dio EAJren eta EH Bilduren garapen eta hazkuntza eredia ez dela bera.

Josune Urkolak erantzun dio oposiziotik ez dutela proposamenak egiteko aukerarik izan.

Alkateak erantzun dio azken bi urte hauetan HAPOa aurreratu ahala hirigintza batzordera eramán izan dituztela edukiak. Hirigintza batzorde guztietan esan izan duela dio Nora



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Erdoziaren bulegoko atea irekita dagoela, udal gobernuko bulegoetako atea irekita daudela eta prest zeudela proposamenak edo ekarpenak jasotzeko, eta horiek entzuteko eta eztabaidatzeko. Bestalde, duela 15 egun ere propio antolatu zutela Udalbatza osoarekin bilera eta beste hamarnaka bilera ere antolatu direla HAPOn inguruan, eta bilera bakar batean ere ez dutela parte hartu azpimarratu du eta ez dutela proposamenik egin.

Josune Urkolak erantzun dio egutegia finkatu zenean, oso egutegi itxia jaso zutela, aldatzeko aukerarik gabe.

Mirari Azurmendik esan du oso itxusia iruditzen zaiola esan duena, berak batzordeetan parte hartu duela dio eta proposamenak egin dituztela, Zingirategi eta Zapategiko kasuak aipatu ditu. Gainontzeko guztietan bai eta ez ibili direla egotzi die. HAPOn dokumentu osoa ez dutela eskuartean izan duela hamar egun arte esan du, eta ondorioz osotasun batetik dokumentua ikustea oso zaila dela dio. Duela bi urte berak eskatu zuela dio kronograma bat egitea jarraipen bat egin ahal izateko.

Jarraitu du esanez espero dutela hiru hilabete hauetan ere proposamenak aurkezteko aukera izatea.

Alkateak erantzun dio beraiek gauzak ez dituztela inoiz itxita eraman hirigintza batzordera.

Mirari Azurmendik esan du hitzarmen guztiak beti itxita eraman izan direla.

Alkateak erantzun dio hirigintza hitzarmenak lantzen ari zirenean, zertan ari zirenaren berri ere beti eman dutela.

Mirari Azurmendik haserre esan dio ez esateko ez dutenik aportaziorik egin.

Alkateak erantzun dio proposamen zehatzekin etorriko zirela espero zutela, eta hori ez dela egon.

Mirari Azurmendik berretsi du proposamen asko egin dituztela.

Alkateak esan dio orain pleno honetan egin dituzten proposamenak lehenago egin izan balituzte, orain agian beste egoera batean egongo lirakeela eta agian beste adostasun batzuk lortuta iritsiko zirela pleno honetara.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Josune Urkolak esan du garbi dagoela beraien beharrik ez daukatela hau edo beste edozein gauza aurrera ateratzeko; beraien beharra izango balute, beste modu batetara hurbilduko liritekeela uste du.

Alkateak erantzun dio beraien beharra izan edo ez herri akordioak lortzen saiatzen direla, ulertzen dutelako HAPOa herri honen etorkizuna zehaztuko duen tresna garrantzitsu bat dela.

Beñat Larrañagak esan du arkitektoaren falta aipatu duela Mirarik, baina galdetu dio hiru urte hauetan zenbatetan joan diren Norarengana.

Mirari Azurmendik erantzun dio hiru urte hauetan hemen egon dela baina dokumentua ikusteko aukera noiz izan duten galdetzen du.

Beñat Larrañagak berriz galdetu dio hiru urte hauetan Norarengana zenbatetan joan diren.

Mirari Azurmendik erantzun dio gusto txarreko galdera dela eta ez diola erantzungo.

Beñat Larrañagak esan du berak erantzungo duela, ez direla inoiz joan.

Mirari Azurmendik haserre lotsagarria dela bere jarrera eta errespetu falta izan dela erantzun dio. Pleno honetan oso garrantzitsua den dokumentu bat dutela, beraien aldetik ahalik eta saiakera onena egin dutela, lanketa bat egon dela, ordu asko sartu dituztela eta denborarik ez diela eman esan du.

Alkateari zuzenduz alkate bezala bera dela honen arduradun esan dio eta ea bera den okerra esaten dio.

Alkateak erantzun dio berak inongo momentutan ez diola errespeturik galdu, berak esan duen gauza bakarra dela dio ez duela beraien ekarpenei buruz eztabaidatzeko aukerarik izan, orain arte ez dituztelako aurkeztu.

Josune Urkolak esan du Beñatek aipatu duela hemen egin behar dena lan gehiago dela, horren aurrean Josunek erantzun dio beraiek ahal dutena egiten dutela eta esan duen hori ez diola onartuko.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Batzarkideek Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2015-0153

Usurbilgo udalak 2014ko maiatzean Usurbilgo plangintza orokorra berrikusteko prozesua hasi zuen, 2004-2013 urte bitartean onartutako Arau Subsidiarioak ordezkatzeko asmoz. Prozesua, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 legearen 108. artikulua ezarritako Herritarren Parte-hartze Programa idatzi eta bertan jasotako “Usurbil, oraina da geroa” herritarren parte-hartzearekin abiatu zen.

Abiatutako lanketaren baitan *Usurbilgo Hiri Antolatzeko Plan Orokorra AURRERAKINA* izeneko dokumentua gauzatu zen. Gauzak horrela, Alkatezak, 2015eko apirilaren 17an emandako 2015/0320 Dekretuaren bidez, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren AURRERAKINA bi hilabetez jendaurrean jartzea erabaki zuen (*Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 75. zenbakia*).

Jendaurreko epealdian izandako iradokizunak erantzutzeaz gain, Udaleko Plenoak, 2015eko irailaren 29an Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko oinarrizko irizpide eta helburuak onartu zituen.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko prozesua 2014. urtean hasi zenetik luzatu da; hala ere, denbora horretan, antolamendu-irizpideak eta -helburuak, hala nola planteatutako proposamenak, herritarren parte-hartze prozesu biziaren mende jarri dira, eta, era berean, ahaleginak egin dira antolamenduak eragindako pertsonekin harremanetan egoteko, interes eta behar publiko eta pribatuak haztatu ahal izateko.

Azkenik, Udaleko Hirigintza Bulegoko Nora Erdozia Ibañez arkitektoak hasierako onarpenerako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idatzi eta aurkeztu du.

TXOSTEN JURIDIKOA

Udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andereak, 2022ko irailaren 26an honako ALDEKO TXOSTENA eman du:

USURBILGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN HASIERAKO ONARPENERAKO TXOSTEN JURIDIKOA

I.- AURREKARIAK

2004ko Irailaren 14an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Usurbilgo Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Berrikuspena behin betiko onartu zuen, hainbat salbuespenekin (*2005ko otsailak 28ko GAO, 39 zk*).

Halaber, Foru Aldundiak Udalarari eskatu zion dokumentu bat onartu eta Foru Aldundiari bidal diezaiola. Foru Aldundiaren aginduari betez, Usurbilgo Udalak



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina idatzi eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko irailaren 6an onartu zuen (2011ko irailaren 23ko GAO, 182 zk).

Onarpen akordio horretan Foru Aldundiak dokumentuan zenbait aldaketa egiteko eskatu zuen. Zuzenketak egin ondoren, 2013ko uztailaren 22an Foru Aldundiak Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu eta 2013ko Irailaren 10ean, GAOn -172zk-argitaratua zuen.

Usurbilgo udalak 2014ko maiatzean Arau Subsidiarioak berrikusteko lanei ekin zien, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren idazketa bultzatuz.

2015ean aurrerapena idatzi ondoren, bi hilabetez jendaurrean jarri zen, apirilaren 17ko 2015/320 Dekretuaren bidez (2015eko apirilaren 23a).

Arau Subsidiarioak berrikusteko prozesua 2014. urtean hasi zenetik luzatu da; hala ere, denbora horretan, antolamendu-irizpideak eta -helburuak, hala nola planteatutako proposamenak, herritarren parte-hartze prozesu biziaren mende jarri dira, eta, era berean, ahaleginak egin dira antolamenduak eragindako pertsonekin harremanetan egoteko, interes eta behar publiko eta pribatuak haztatu ahal izateko.

Azkenik, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idatzi, hasierako onarpena emateko.

II.- TXOSTEN HONEN XEDEA

Txosten juridiko honen xedea da aztertzea ea dokumentuak, **bere edukiari eta zehaztapenei dagokienez**, betetzen duen indarreko legerian ezarritakoa.

III.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Txosten juridiko hau idazteko, honako araudia aztertu da:

Euskal Autonomi Erkidegoan indarren diren hirigintza eta lurralde antolamenduari dagozkion xedapenak:

- 2/2006 Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzekoa.
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

- 11/2008 Legea, azaroaren 28koa, Hirigintza jarduerak sortutako gainbalioetan erkidegoak izan behar duen parte hartzea aldatzekoa.
- 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintza estandarrei buruzkoa.
- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Plan eta Programen Ingurumen ebaluazio Estrategikoaren izapidetzea arautzen duena
- 4/2005 Legea, otsailaren 18ko, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako .
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoarena.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.

Estatuko Araudiari dagozkion xedapenak:

- 7/2015 Errege Dekretu Legegilea, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri-birgaitzearen Legearen Testu Bategina onartzen duena
- Lurzoru Legearen balorazioen erregelamendua, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretuaren bitartez onartutakoa (1492/2011 Errege Dekretua).
- Ingurumen-ebaluazioaren Legea, 2013ko abenduaren 9koa.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa, eta hura garatzen duen 2005eko abenduaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretua, ingurunekeo zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez, lehenengoa, eta zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez, bigarrena.

Aipatutako legeriaz gain, Plan Orokorra idazteko, kontuan hartu dira sektoreko legeriaren zehaztapenak (ura, itsasertza, telekomunikazioak, nekazaritza, abiazio zibila, trenbidea, etab.), bai eta lurralde-plangintzako tresnak ere. Beraz, dokumentua izapidetzean, nahitaezko txosten sektorialak eskatuko dira.

IV.- PLAN OROKORRAREN DOKUMENTAZIOARI DAGOKIONEZ

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 62. artikulua Plan Orokorrek izan behar duten gutxieneko edukia arautzen du. Honako hauek dira:

- a) *Memoria informatiboa eta justifikatiboa.* Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso behar du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.

- b) *Ingurumen-kalteari buruzko aurreiazko txostena betetzearen memoria justifikatiboa*. Memoria horretan, gainera, garapen eramangarriaren ikuspuntutik arrazoitu beharko da hautatutako antolamendua, eta lurzoruak planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartze-gaitasuna ere kontuan izan.
- c) Informazio-planoak.
- d) Egiturazko antolamenduaren planoak.
- e) Antolamendu xehatuaren planoak.
- f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa

Era berean, aipatutako artikulua 2. zenbakian adierazten denez, plan orokorrekin **urbanizazio- eta eraikuntza-katalogoetan eta -ordenantzetan** sartu ahal izango dituzte.

7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, otsailaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena aplikatuz, plangintza-tresnek honako dokumentu hauek jaso behar dituzte:

- **Laburpen exekutiboa (25.3 artikulua)**, alderdi hauek jasoko dituenak:
 - a) Proiektaturiko antolamenduak indarrean dagoena zein eremutan aldatzen duen zedarriztatzea, kokalekuaren plano bat emanez eta aldaketa horren norainokoa adieraziz.
 - b) Hala badagokio, zein eremutan uzten diren geldieran hirigintza-antolamendua edo hirigintza-planak exekutatzeko zein hirigintzan esku hartzeko prozedurak, eta geldiera horren iraupena.
- **Jasangarritasun ekonomikoari buruzko txostena edo memoria. (22.4 artikulua)**. Dokumentu horretan, hirigintza-jarduketan ondorioz administrazioari lagako zaizkion azpiegituren mantentzeak eta kontserbazioak ogasun publikoetan izango duen eragina aztertu beharko da.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko Legea (estatu-mailakoa), 2012ko urriaren 16ko Dekretua eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena, (*Euskal Autonomia Erkidegoan eragina dutenak*) aplikatuz, Udalak, Plan Orokorraren hasierako onarpen-dokumentuarekin batera, ingurumen-azterketa estrategikoa idatzi behar du, ingurumen-organoak emandako irismen-dokumentua kontuan hartuta.

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

4/2005 Legearen 18.1 artikulua honako hau ezartzen du: “*Arauk garatu eta aplikatzerakoan, **bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko** beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-agintek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua..*”

Lege horren 46.1 artikuluan ere honako hau jasotzen da: “*Euskal herri-agintek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren **ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan** zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko (...)*”

2019ko azaroan Euskadiko Toki Erakundearen Legea (2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) garatzen duen dekretua sartu zen indarrean, beste gai batzuekin batera, planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktua ebaluatzeko prozesua arautzen duena: 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

Seigarren kapituluan, planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa lantzen da, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 7. artikuluko 7. apartatua garatzeko. Tresna horren bidez, dekretu honetako 50. artikuluan aipatzen diren udal-eskumeneko planek eta proiektuek euskararen eta gaztelaniaren erabilera izan dezaketean inpaktua aztertu eta ebaluatu nahi da. Horrek aukera ematen du balizko hizkuntza-inpaktuari aurrea hartzeko eta hura zuzentzeko neurriak proposatzeko, gerta litezkeen inpaktu kaltegarriak saihesteko edo minimizatzeke, bai eta kasu bakoitzean egoera bideratzeko irtenbiderik egokiena bilatzeko ere. Helburua aukerarik onena baliatzea da, plan edo proiektu bakoitzak hizkuntzen erabilera normalizazioan izan ditzakeen ondorioak aztertuta. Horretarako, planen eta proiektuen onarpenean hizkuntza-ikuspegia txertatzeko beharra ezarri da.

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa 179/2019 Dekretuak ezarritako jarraibideen arabera IRISMEN DOKUMENTUA egin behar da; hau da, plan edo proiektu batek eremu jakin batean zenbaterainoko eragin soziolinguistikoa izan dezakeen esango digun dokumentua.

Zaratei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko **urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren** 37. artikulua inpaktu akustikoari buruzko azterlan bat idaztea eskatzen du, etorkizunean hirigintza-garapena aurreikusten denean, hirigintza-kalifikazioaren aldaketak barne.

Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak, 7.2.b) artikuluan, jasangarritasun energetikoari buruzko azterlan baten mende jartzen ditu egiturazko antolamendu-planak.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Hasierako onespenerako aurkeztutako Plan Orokorraren dokumentua aztertuta, eta aipatutako legeriak eskatutako edukiari dagokionez, honako hau ondorioztatzen dugu:

1.- **A dokumentua, Memoria.** Dokumentu horrek barne hartzen ditu informazio- eta justifikazio-memoria, herritarren parte-hartzea, alternatibak aurkezteko eta hautatzeko prozesua, eta lurralde-ereduaren deskribapena ingurumen-zehaztapenak kontuan hartuta.

Agiri honek ditu: ingurumen azterketa estrategikoa (A.2), genero inpaktuari buruzko txostena (A.3) eta euskararen hizkuntza inpaktu azterlana (A.4).

2.- **H dokumentuan**, informazioko, antolamendu orokorreko eta antolamendu zehatuko planoak jaso dira.

3.- **F dokumentua** bideragarritasun eta jasagarritasun ekonomikoaren azterketak jasotzen ditu, 2/2006 Legearen 62.1.f) artikulua eta 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 22.4 artikulua betez.

4.- HAPOK araudia izeneko **B dokumentua** du, bai orokorra (B.1), bai arlo eta sektore bakoitzeko fitxak (B.2).

5.- Ondareari dagokionez, **D dokumentuan** balio arkeologikoa, kulturala, arkitektonikoa eta etnografikoa duten ondasunen katalogoa sartu da.

6.- Laburpen exekutiboa Planaren **G dokumentuan** sartuta dago.

7.- Zarata-mapa eta inpaktu akustikoaren azterketa **A.5 memoriaren** dokumentuan sartu dira.

8.- Jasagarritasun energetikoaren azterketa ingurumen-azterketa estrategikoaren **II. eranskin gisa** aurkeztu da.

9.- Ingurumen-azterketa estrategikoaren **III. eranskinean**, nekazaritza-sektorearen gaineko eraginari buruzko txostena jasotzen da, Plan Sektorialeko zehaztapenak betez.

Azaldutako guztiagatik, hasierako onspena emateko aurkeztutako Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentuak BETETZEN DU aplikagarria den hirigintzako eta sektoreko legerian eskatutakoa.

V.- PLAN OROKORRAREN FUNTSEZKO EDUKIA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 58. artikulua zehazten du egiturazko zehaztapenak plangintza orokorrean jaso beharko direla.



53. artikulua Plan Orokor batek izan behar dituen zehaztapenak arautzen ditu. Beraz, txosten honen bidez, Usurbilgo Plan Orokorren alderdi guztiak bete diren aztertuko dugu.

VI.1.- Oro har

- a) Hiri-bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia: alderdi hori A *"memoria"* dokumentuko II.4 atalean jasotzen da.
- b) Lurzoruaren sailkapena. Herri osoa hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen da. Lurzoruaren sailkapena Arau Orokorretako (B.1) II.1 kapituluaren eta antolamendu-planoetan (H dokumentua) arautzen da.
- c) Kalifikazio orokorra. Arau orokorren laugarren tituluan (B.1) eta antolamendu-planoetan (H dokumentua) arautzen da.
- d) Garapen-plangintza egiteko eta onartzeko, eta lurzoruaren programatzeko epeak finkatzeko. Plan Orokorra, proposatzen dituen jarduketaren programazioa, E *"jarduketa programa"* agirian arautzen du.
- e) Ingurumena babesteko jarraibideak, bereziki kultura-ondareari buruzkoak. Arau Orokorren IX. tituluan jasotzen da Ingurumena, Pasaia eta Natura babesteko araudia, eta X. tituluan, berriz, babestutako ondasun eta elementuen katalogoa.
- f) Sistema orokorra zehaztea, hirigintza-garapenaren arrazionaltasuna eta koherentzia bermatzeko, bai eta garapen hori lortzeko sistema ere. Sistema orokorra antolamendu-planoetan jasota daude, eta Arau Orokorretako IV. Tituluan, *"Lurzoruaren kalifikazio orokorren erregimena"*, arautzen dira. Kudeaketari dagokionez, VIII.1 kapituluaren arautzen da.
- g) Etxebizitza babestuen estandarrak eta gutxieneko zenbatekoak betetzea. Planaren memorian, III.1.1 atalean, 2/2006 Legean eta 123/2012 Dekretuan eskatutako estandarrak betetzen direla justifikatzen da, honela:
 - Espazio libreen sistema orokorra, biztanle-kopuruaren eta emandako eraikigarritasun berriaren arabera, 44.594 m²-ko azalera izan behar zuen, eta planak 218.640 m² aurreikusten du, 36 m² biztanle bakoitzeko.
 - Etxebizitza babestua: proposatutako 723 etxebizitza berrietatik 410 (%57) babes publikoko etxebizitzak dira eta 313 (%43)



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

libreak. 410 babestuez gain, %25 tasatuak dira eta %75 babes publikoko etxebizitzak.

- Zuzkidura-bizitokiei dagokienez, Usurbilek, biztanle kopuruagatik, betetzeko legezko betebeharrak ez duen arren, Ugartondon zuzkidura-ekipamenduko partzela bat jasotzen da.

h) Espazio-eremuak mugatzeko irizpideak, egiturazko antolamendua aldatu gabe. Zehaztaper hori araudi orokorrean arautu da, eta ezarri da, oro har, Hirigintza Arau Berezietan esplizituki ezarri daitekeenaren kalterik gabe, egokitzaper horiek ezingo dute jatorriz azalera bakoitzari emandako azalaren % 5 baino gehiagoko hazkundera edo gutxitzea eragin.

VI.2.- Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarri sektoretan.

2/2006 Legearen 53.2 artikuluan eskatzen diren gutxienerako zehaztaperak definitzen dira B.2. "*Hirigintza Arau Partikularrak*" eta H. "*Planoak*" dokumentuan. Izan ere, hirigintza-fitxa bakoitzean honako zehaztaper hauek jasotzen dira: kokapena, antolamendu irizpideak y eta helburuak, mugaketa, lurzoruaren sailkapena, kalifikazio orokorra eta xehatua, hirigintza eraikigarritasuna, eraikigarritasun fisikoa, erabilera-baldintzak, sistema orokor eta lokalen sareak, eraikuntzaren parametro geometrikoak, partzelatzea, exekuzio-erregimena eta gainjarritako baldintzak.

VI.3.- Lurzoru urbanizaezinean

2/2006 Legearen 53.4 artikuluan eskatzen diren gutxienerako zehaztaperak definitzen dira B.1. "*Hirigintza Arau Orokorrak*" dokumentuan eta H. "*Planoak*" dokumentuan; izan ere, seigarren tituluan "*Lurzoru urbanizagarriaren erregimena*" lurzoru urbanizaezinearen kategoriak definitzen dira, zehaztutako kategoria bakoitzeko erabilerak, eraikinak eta instalazioak arautzen dira, bai eta *hirigintza-antolamenduari gainjarritako baldintzak* ere.

Horregatik guztiagatik, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren agiririari **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio hasierako onspena eman ahal izateko.

Donostian, 2022ko irailaren 26an.
Izpta.- Nekane Azarola Martínez. Abokatua.
ARAUDI S.L.P

LEGE TXOSTENA

Udal idazkariak, Garazi Etxeberria San Miguel andreak, 2022ko irailaren 29an honako txostena eman du:

Garazi Etxeberria San Miguelek, Usurbilgo Udaleko idazkari naizen aldetik, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 173.1. artikuluan eta Gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honako txosten hau ematen dut:

TXOSTENA

LEHENENGOA.- araudi aplikagarria

Aplikatu beharreko oinarritzko legeria honako hau da:

- 7/2015 Errege Dekretu Legegilea, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri-birgaitzearen Legearen Testu Bategina onartzen duena
- 2/2006 Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa.
- Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Plan eta Programen Ingurumen ebaluazio Estrategikoaren izapidetzea arautzen duena
- Ingurumen-ebaluazioaren 21/2013 Legea, abenduaren 9koa.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratarari buruzkoa, eta hura garatzen duen 2005eko abenduaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretua, inguruneke zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez, lehenengoa, eta zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez, bigarrena
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hotskutsadurari buruzkoa.
- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua
- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoarena.

Aipatu legeriaz gain, kontau hartu beharko dira sektoreko legedia eta lurralde plangintzako tresnak ere.

BIGARRENA.- Gogoeta juridikoak

Txosten honek Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) izapidetzari dagozkion jarraibideak aztertzea du xede.

Usurbilgo Udalak idatzi du dokumentua. Horren azterketa eginaz, hirigintzako aholkulari juridikoak eman du txostena, eta HAPOari onespena emateko aldeko



proposamena egiten du, eduki eta dokumentuak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearekin eta hau garatzen duen premiazko neurriei buruzko, eta ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuarekin bat datorrela adieraziz.

Espedientea aztertuta, orain arteko izapide eta proiektuaren eduki material eta formala 2/2006 legeko 62. Artikuluarekin eta 105/2008 Dekretuko 31. artikuluan jasotakoarekin (46/2020 dekretuak emandako idazkeran) bat datoz. Hala, honako egitura du aztertzen ari garen dokumentuak:

AGIRIA – MEMORIA

- A.1 – Hiri antolamenduaren eta horren exekuzioaren azalpen eta justifikazio memoria.
- A.2 – Ingurumen azterketa estrategikoa
- A.3 – Genero inpaktuari buruzko txostena
- A.4 – Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa - Euskararen hizkuntza inpaktuko azterlana
- A.5 – Usurbilgo zarata mapa eta Inpaktu akustikoaren azterlana

B AGIRIA – HIRIGINTZA-ARAUAK

- B.1 – Hirigintza Arau Orokorrak.
- B.2 – Hirigintza Arau Partikularrak.

D AGIRIA – ONDARE KATALOGOA

E AGIRIA – JARDUKETA-PROGRAMA

F AGIRIA – EKONOMIA ETA FINANTZA BIDERAGARRITASUN ETA IRAUNKORTASUN AZTERKETA

G AGIRIA – EGIKARITZE LABURPENA

H AGIRIA – PLANOAK

- I – Informazio-planoak.
- II – Antolamendu orokorraren planoak.
 - II.1 Hirigintza Erregimen Orokorra
 - II.2 Mugikortasun Sare Orokorrak
 - II.3 Espazio Libre eta Ekipamendu Sare Orokorrak
 - II.4 Zerbitzu Azpiegituren Sare Orokorrak
 - II.5 Gainjarritako antolamendu-baldintzak
- III – Katalogoko Planoak (D agiriari atxikiak).
- IV – Antolamenduaren plano argigarria.
- V – Antolamendu xehatuko planoak (B.2 agiriari atxikiak).

ERANSKINAK

- ERANSKINA: Genero perspektiba eta eguneroko bizimodua Usurbilgo espazio publikoan: espazio publikoaren eta mugikortasun iraunkorraren plana
- ERANSKINA: Oria ibaiaren paisaiarako ekintza plana idatzi zen Oria ibaiaren paisaiarako ekintza plana.

2/2006 Legeak honako hau jasotzen du 85.3 artikuluan:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

“Hirigintzako planei hasierako onespina emateak berekin ekarriko du edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera etetea planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako. Etendura horrek ordezkatu egingo du aurreko paragrafoan zehaztutako neurria, neurri hori aurretik hartuta baldin badago.”

Bestalde, kontuan izan behar Udalek plan eta proiektuen (tartean, HAPOa) hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dutela, bai eta horien funtsezko aldaketenak ere, baldin eta euskararen erabilera eragina izango badute, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak jasotakoaren baitan.

Izapidetzen ari garen planak jaso du Euskararen erangin Linguistikoaren Hizkuntza Inpaktuko Azterlana.

HIRUGARRENA: jarraitu beharreko prozedura

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeko 90.5 artikulua araber, Udalak hasierako onespina emango dio plan orokorrari, eta ondoren jendaurrean jarriko du, udalerriari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz. Plana hilabetez egongo da jendaurrean, azken argitalpenetik kontatzen hasita.

Jendaurrean jartzeko izapidetarako gutxieneko dokumentazioa 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuko 32. Artikuluak jasotzen du. Zehazki, plan eta tresna horiek bilduko dituen dokumentazioa aurkezteaz gain, honako alderdi hauek adieraziko dituen laburpen exekutiboa jarri beharko da jendaurrean:

a) Zenbait eremutan proiektatutako antolamenduak indarrean dagoen antolamendua aldatzen duenean, eremu horien mugaketa, kokapenaren planoarekin eta aldakuntzaren zenbaterainokoarekin. Egungo egoera eta antolamenduak aurreikusitako etorkizuneko irudia konparatzeko aukera emango duten informazio grafikoko planoak edo tresnak txertatuko dira.

b) Hala badagokio, hirigintza-antolamendua edo egikaritzeko prozedurak eteten diren eremuak, eta etendura horren iraupena.

Era berean, sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onspenaren berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten. Honako hauek emango zaie onspenaren berri:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Zuzendaritza Nagusi hauek:
 - Mendiak eta Natura Ingurunea
 - Nekazaritza eta Landa Garapena



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

- Lurraldearen Antolaketa
- Bide Azpiegituretako Departamenduko Kudeaketa eta Plangintza
- Mugikortasuna eta Garraio Publikoa
- Obra Hidraulikoak
- Kulturako Zuzendaritza

- Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza hauek eta haren mende dauden honako erakundeak:
 - Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
 - Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
 - Natur Ingurunea eta Ingurumen Plangintza
 - Lurralde Plangintza eta Hirigintza
 - Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
 - Kultura Ondarea eta Hizkuntza Politika
 - Garraio Azpiegitureak
 - Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza
 - IHOBE
 - Uraren Euskal Agentzia (URA)
 - ETS
 - Segurtasun Saila
 - Energiaren Euskal Erakundea
 - Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza

- Estatuko erakunde hauek:
 - Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala
 - Kantauriko Ur Konfederazioko Uren Ikuskatzailatza
 - Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusia. Sustapen Ministerioa

Mugakide dituen herriei ere onespeneren berri emango zaie, zehazki hauei: Donostia, Lasarte-Oria, Zizurkil, Aia, eta Orio.

Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onspena eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik.

Bestalde, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 legeak jasotzen duenaren baitan, Ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta eduki beharko dute Administrazio publiko batek hartutako II.A eranskinean zerrendatutako planek eta programek (tartean HAPOak), eta horien aldaketek eta berrikuspenek, eta horiek



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

egitea lege- edo erregelamendu-xedapen batek edo Gobernu Kontseiluaren akordioaren batek eskatzen badu.

Ingurumen-ebaluazioaren 21/2013 Legeak 21. Artikuluak eta 211/2012 dekretuko 12. Artikuluak jasotakoaren arabera, organo substantiboak jendurrean jarriko du plan edo programaren hasierako bertsio hori, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean eta, hala badagokio, egoitza elektronikoan iragarri ondoren. Informazio publikoa, gutxienez, berrogeita bost egun balioduneko izango da. Organo substantiboaren ordezkariak, sustatzaileak egin ahal izango du informazio publikoa, baldin eta, sektoreko legeriaren arabera, sustatzaileari badagokio plan edo programaren administrazio-izapidetzea.

Jendurrean jarriko den dokumentazioak, halaber, ingurumen-azterketa estrategikoaren laburpen ez-tekniko bat jasoko du.

Organo substantiboak beharrezko neurriak hartuko ditu, informazio publikoa behar duen dokumentazioak ahalik eta zabalkunderik handiena izan dezan jendearen artean, bitarteko elektronikoak eta beste komunikabide batzuk erabiliz.

Jendurrean jartzeko izapidearekin batera, organo substantiboak aurretik kontsultatutako eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsultatutako die planaren edo programaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera.

Eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta bitarteko elektronikoan edo bestelakoan bidez egingo zaie, betiere kontsulta egin dela egiaztatzen bada.

Eragindako administrazio publikoek eta pertsona interesdunek gutxienez hogeita hamar egun balioduneko epea izango dute, planaren edo programaren hasierako bertsioa aurkezten zaienetik hasita, egokitzen jotzen dituzten txostenak eta alegazioak egiteko, ingurumen azterketa estrategikoarekin batera.

Jendurreko informazioko eta kontsultetako izapideetan egindako alegazioak kontuan hartuta, mugaz gaindiko kontsultak barne, beharrezkoa izanez gero, sustatzaileak ingurumen-azterketa estrategikoa aldatuko du, eta planaren edo programaren azken proposamena egingo du.

Ez dira kontuan hartuko adierazitako epeetatik kanpo jasotako txostenak edo alegazioak.

Organo substantiboak ingurumen-azterketa estrategikoaren espediente osoa bidaliko dio ingurumen-organoari, honako hauek osatua:

- Plan edo programaren azken proposamena,



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

- Ingurumen-azterketa estrategikoa,
- informazio publikoaren eta kontsulten emaitza (eta hala badagokio, horiek nola hartu diren kontuan),
- planaren edo programaren azken proposamenean ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta horiek irismen-dokumentura nola egokitzen diren, egindako kontsulten emaitzak eta horiek nola hartu diren kontuan jasotzen duen laburpen dokumentua

Ingurumen-organoak, espedientearen azterketa teknikoa amaitu ondoren, ingurumen-adierazpen estrategikoa egingo du. Adierazpen hori nahitaezkoa eta erabakigarria izango da, eta haren edukia planean sartu beharko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeko 7. Artikulua arabera, HAPOak jasangarritasun energetikoari buruzko azterketa jaso behar du.

Azterketa horrek honako alderdi hauek jorratu behar ditu:

- a) Jasangarritasun energetikoko eskakizunetara egokitu den jakiteko ebaluazioa.
- b) Eraikinetan eta azpiegituretan energia berriztagarriak ezartzearen ebaluazioa.
- c) Mugikortasun-azterketa, energia-kontsumoaren ondorioetarako, garraio pribatuaren erabileraren ordezkotarako aukerak ere sartuta, eta mugikortasun ez-motorizatua eta mugikortasunik eza sustatzeko politikak.
- d) Kanpoko argiteria publikoaren azterketa, espazio publiko bakoitzerako argiztapen maila eta -denbora egokienak ebaluatzeko.

HAPOari legez ezarritako ingurumenaren ebaluazio-prozedura estrategikoa bat egin behar bazaie, hain zuzen ere ingurumen arloko ebaluazio-prozedura horren barruan txertatuko dira goian aipatu diren alderdiak, eta ez dago zertan bikoiztu ingurumen arloko ebaluazio-prozedura horiek arautzen dituzten arauetan ere eskatzen diren alderdiak, hau da, jasangarritasun energetikoari buruzko azterketaren bestelako alderdiak. Horrela egin da honako kasu honetan.

Azkenik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 91 artikulua jasotakoaren arabera, Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingo eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio. Batzordeak txostena egingo du, eta txostenak dioena loteslea izango da plan orokorra lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

sektorial guztiei egokitzeari dagokionez, Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-txostena barne.

Batzordeak plana jaso eta hiru hilabeteko epean txostena eman ez badu, aurrera egin ahal izango da izapideekin. Plan orokor bat ezin izango da behin betiko onartu, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena eman ez badu edo hori egiteko epea amaitu ez bada. Agindu hau bete gabe onartzen diren plan orokorrak erabat deusezak izango dira. Alabaina, txostena epez kanpo ematen bada, ez da nahitaez kontuan hartuko plana behin betiko onartzeko orduan.

Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta foru-aldundiei gainerakoetan. Beraz, kasu honetan, Usurbilek 7.000 biztanle baino gutxiago dituenez, eta behin beharrezko aldaketak eginda, Usurbilgo Udalak, foru-organoari bidaliko dio espedientea, hark hiru hilabete baino lehen behin betiko onartzeko.

HAPOaren hasierako onarpenak Osoko Bilkurako legezko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa behar du, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeako 47.2 artikuluko II atalak jasotakoaren baitan.

Azaldutakoaren arabera, organo eskudunari honako proposamena aurkezten zaio:

IRIZPEN PROPOSAMENA

Lehenengoa.- HAPOari hasierako onespina ematea, eta ingurumen-azterketa estrategikoarekin eta proiektatutako antolamenduak indarrean dagoena aldatzen duen eremuen mugaketaren laburpen exekutiboarekin batera jendaurrean jartzea 45 egunez.

Bigarrena.- Aipatutako dokumentua jendaurrean jartzea, iragarki bana argitaratuz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berria, Gara eta Diario Vasco egunkarietan eta udalaren egoitza elektronikoan, interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Ingurumen-azterlan estrategikoa ere jendaurrean jartzen da epe horretan, interesdunek azter dezaten eta egoki iritzitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Halaber, eraginpeko administrazio publikoei eta herritar interesdunei kontsulta egitea, 45 eguneko epean HAPOa eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa aztertu ahal izateko, eta egokitzat jotzen dituzten oharrak egin ditzaten.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Izapide horiek amaitu ondoren, espedientearen kopia osoa bidaliko zaio ingurumen-organo eskudunari, nahitaezko ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan.

Hirugarrena.- Mota guztietako onarpen, baimen eta lizentziak etetea aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan. Eremuak espedientearen daude zehaztuta, G agiriko (Egikaritze Laburpena) 4. Atalean. Etete horrek gehienez bi urteko iraupena izango du.

Laugarrena.- Hasierako onespina jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezten eta txostena egin dezaten, aipatutako eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoei.

Hau da sinatzen duen honen iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Hala eta guztiz ere, Udalbatzak egokitzat jotzen duena erabakiko du.

Usurbilen, sinadura datan.
Garazi Etxeberria San Miguel
Udal Idazkaria

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2022ko urriaren 6an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta eta Lur Etxeberriaren aldeko botoekin, eta Carlos Perezen abstentzioarekin, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onespina ematea.

BIGARRENA: Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, ingurumen-azterketa estrategikoa eta proiektatutako antolamenduak indarrean dagoena aldatzen duen eremuen mugaketaren laburpen exekutiboa jendaurrean jartzea 2023ko urtarrilaren 31a arte, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, ohiko egunkarietan eta udalaren egoitza elektronikoa iragarkia argitaratuz, interesatuek hala baderitzote dagokien alegazioak aurkeztu ditzaten.

Ingurumen-azterlan estrategikoa ere jendaurrean jartzen da epealdi horretan, interesdunek azter dezaten eta egoki iritzitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Halaber, eraginpeko administrazio publikoei eta herritar interesdunei kontsulta egitea, 2023ko urtarrilaren 31a arteko epean HAPOa eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa aztertu ahal izateko, eta egokitzat jotzen dituzten oharak egin ditzaten.

Izapide horiek amaitu ondoren, espedientearen kopia osoa bidaliko zaio ingurumen-organo eskudunari, nahitaezko ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan.

HIRUGARRENA: Mota guztietako onarpen, baimen eta lizentziak etetea aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/10/13

Eremuak espedientean daude zehaztuta, G agiriko (Egikaritze Laburpena) 4. Atalean. Etete horrek gehienez bi urteko iraupena izango du.

LAUGARRENA: Hasierako onespena jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten, aipatutako eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoei.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, arratsaldeko 19:30ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.